

## **Kirol Zerbitzuak “Arabako urrezko emakumeak” kanpaina jarriko du abian, neska gazte arabarrak kirola egitera bultzatzeko**

*15 diziplinatako 17 kirolarik egiten duten kirolaren eta lehiaketetan izandako esperientziaren berri emango dute, ekainetik aurrera hamabostean behin kaleratuko den argitalpenean*

*Kanpainaren helburuetako bat neska-mutilen artean emakumezko kirolariak ezagutzera ematea da, erreferente bihur daitezen eta kirolari eta jarraitzaile gutxi dituzten kirolak sustatzeko*

**Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 31.** Ana del Val foru diputatuak zuzentzen duen Kultura eta Kirol Sailak “Arabako urrezko emakumeak” kanpaina abiarazi du, nerabeen artean emakumeen kirola sustatzeko eta zabaltzeko, hain ohikoak ez diren edo jende gutxik praktikatzen dituen diziplinak ezagutarazteko eta haurren artean kirolari arrakastatsuak ezagutzera emateko.

15 diziplinatako 17 kirolarik hartuko dute parte, eta, elkarrizketen eta bideoen bidez, egiten duten kirolaren eta kirolean eta lehiaketetan izandako esperientziaren berri emango dute. Beren balio eta bizipen pertsonaletatik hasi eta kirol arrakastetara, kanpainak kirola egiteak dakartzan alderdi positibo guztiak goraiapatuko ditu, Arabako erreferenteen bidez, kirola sustatzeko.

Elkarrizketak Arabako Foru Aldundiak berak argitaratutako aldizkarietan irakurri ahal izango dira, zeinak ikastetxe eta kiroldegietan banatuko baitituzte. Formatu digitalean ere izango dira eskuragarri, bi bidetatik: Arabako Foru Aldundiaren web orrian eta materiala ekoizten eta argitaratzen laguntzen duen [www.dxtfem.com](http://www.dxtfem.com) emakumeen kirolari buruzko atarian, baita Facebook, Twitter eta Instagram sare sozialetan ere.

Azken sare sozial hori izango da egin diren 15 bideoen erakusleihu nagusia. Bideo horietan kirolariek beraiek gonbidatuko dituzte haurrak kirola egiten hastera.

“Arabako urrezko emakumeak” izenburua azken hamarkadetan Espainiako, Europako eta Joko Olinpikoetako txapeldunek izandako kirol arrakasten aipamena da, esaterako, 1996ko Atlantako Joko Olinpikoetako gimnasta arabarrek lortutako garaipenarena.

Ainhoa Santamaria arku tiroko Espainiako txapelduna, Anne Fernández de Corres hiru aldiz Europako errugbi txapelduna, Ainhoa Gotxikoa eta Uxue Alba igerilari gazteak, Lur Azpitarte atletismoko promesa gaztea, Dina Abouzeid badminton inklusiboko entrenatzaile eta jokalaria... 17 protagonistetako bakoitzak gure hiriaren eta probintziaren nortasun ezaugarriak irudikatzen ditu, Espainiako eta Europako

beste hiri batzuetan goستن dituzten diziplinetako asko praktikatzeko egokitutako kirol lurraldea baita gurea.

Honako diziplina hauetako kirolariek hartuko dute parte kanpainan: errugbia, tenisa, mahai tenisa, aulki errugbia, badminton inklusiboa, karatea, igeriketa, arku tiroa, piraguismoa, borroka, atletismoa, txirrindularitza, lerro eta izotz hockeya, pala eta halterofilia.

Hamabostean behin, kirol horietako kirolari bat emango dute ezagutzera, bai kirolarekin lotutako alderdien berri emanez, bai giza alderdien berri, etorkizuneko belaunaldientzat eredu izan daitezzen.

Hauek dira “Arabako urrezko emakumeak” kanpainaren protagonistak:

- 1-Ainhoa Santamaría (arku tiroa)
- 2-Anne Fernández de Corres (errugbia)
- 3-Lur Azpitarte (atletismoa)
- 4-June Marcos (aulki errugbia)
- 5- Dina Abouzeid (badminton inklusiboa)
- 6-Paula Suárez (txirrindularitza)
- 7-Amalur Xinxu Pereda (piraguismoa)
- 8-Alba Pinilla (karatea)
- 9-Haizea Fernández de Romarate (lerro eta izotz hockeya)
- 10-Ane Ibáñez (pala)
- 11-Sarai Delgado (mahai tenisa)
- 12-Haizea Pérez (halterofilia)
- 13- Nerea Elorza (borroka)
- 14-Ainhoa Gotxikoa y Uxue Alba (igeriketa)
- 15-June y Zuriñe Viñagre (tenisa)